

KUDEAKETAKO BERDINTASUNERAKO JARDUNBIDE EGOKIAK JASOTZEKO GALDETEGIA

IZENBURUA: Genero-ikuspegiaren lanketa modu parte hartzailean.

HELBURUAK: Euskaltzaleen Topaguneak emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunean sinisten du eta berdintasun horretan aurrera pausuak emateko 2018an prozesu bat abiatu zuen. Bidea modu parte hartzailean egiteko erabakia hartu zuen erakundeak, lantaldeko kide guztien iritzi, bizipen eta harreman anitzak ordezkatuak izateko helburuarekin. Izan ere, prozesua diseinu eta dinamika parte-hartzaile batean oinarritzen bada, bere garapena eraginkorragoa izateko aukera handiagoa izango du, etorkizunera begirako eragina biderkatuz.

ENTITATE ARDURADUNA: Euskaltzaleen Topagunea.

Emakumezko langileen kopurua: 22 **Guztiraren gaineko portzentajea:** %73,3

Gizonezko langileen kopurua: 8 **Guztiraren gaineko portzentajea:** %26,7

WEBGUNEA: <https://topagunea.eus/>

JARDUNBIDE EGOKIAN PARTE HARTZEN DUTEN BESTE ENTITATE BATZUK: Ez dago.

HASIERA EGUNA: 2018. urtea.

HARREMANETARAKO PERTSONA: Goiatz Urquijo Castañares (Genero berdintasun plangintzaren arduraduna) eta Maite Agirre Ena (Eraso sexistei aurre egiteko protokoloaren arduraduna).

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 688.746.991 (Goiatz) eta 674.345.738 (Maite)

HARREMANETARAKO E-MAILA: generoa@topagunea.eus

AZALPENA: Jarraian, Euskaltzaleen Topaguneak genero berdintasunaren alorrean modu parte hartzailean aurrera eramandako prozesu zein ekintzak aurkezten dira.

Arestian aipatu bezala, 2018. urtean abiatu zuen Euskaltzaleen Topaguneak genero berdintasunaren lanketa parte hartzailea. Horretarako, lehenik eta behin, erakundeko lantaldeari oinarrizko formazioa eskaini zion, bi saio aurrera eramanez, guztira 18 orduko formazioa eskainiz. Honako helburu hauek bete zituelarik formakuntzak:

- Feminismoaren inguruko oinarrizko formazioa eskaintzea.
- Elkarre batean genero ikuspegia txertatzeko oinarrizko formazioa eskaintzea.
- Norbanakoen hausnarketa prozesua sustatzea.
- Kontzientziazio prozesuak sustatzea.

2019. urtean, Topaguneak erakundearen genero diagnostikoa egitea erabaki zuen. Prozesuan zehar bidelagun izan zuen Emagin elkarteak, berak bideratu baitzuen diagnostikoaren prozesua. Diagnostiko honek, etorkizuneko genero berdintasunerako balizko ekintza plan baten bide-orria izateko helburua zuen.

Metodologiari dagokionean, triangulazio metodologikora jo genuen, edozein errealitate sozial aztertzerakoan beharrezko deritzogun konplexutasun eta malgutasuna baimentzen baitu: informazio kuantitatiboa, kualitatiboa eta dinamika parte hartzaileak uztartuz. Horretarako, metodo eta teknika ezberdinak uztartu ziren:

- **Dokumentuen analisia:** Erakundea egituratzen duten eta erakundeak sortutako dokumentuak aztertu ziren genero irizpide batzuen arabera.
- **Informazio kualitatibo eta kuantitatiboa:** Informazio kualitatiboan dago diagnostikoaren indarra, arlo ezberdinei buruzko erakundearen nondik norakoak aztertzeko bertako kideen diskurtso eta praktiketara hurbilduz. Hau da, genero ikuspegitik erakundearen errealitatea nola bizi eta esanahaitzen duten jaso zen. Beraz, diagnostikoan jasotzen diren iritzi eta pertzepzioak, eta hauen adierazle diren aipuak ondorengo bideetatik jaso dira:
 - Hiruko talde elkarrizketak: Ikerketa kualitatiboa garatzeko teknika hau, eztabaida taldeak eta elkarrizketa pertsonalen artean kokatzen da. Bizipenetan gehiago oinarritzen den diskurtsoa ahalbidetzen du talde handiagoek baino. Aurretik elkar-ezagutzen diren eta harremana duten testuinguruetan erabiltzeko egokia da, izan ere, aurrez egon daitezkeen lidergoen edo gatazken eragina leuntzen du informazio bilketan. Hirukien osaera ondorengo izan da: langile teknikariek osatutako emakumeekin hiruki bat eta gizonezkoekin beste bat, ardura postuetan dauden emakumeak eta militanteak (gizonezkoak).
 - Lan taldeko emakumeekin ahalduntze tailerra: Lan taldeko emakumezko kideekin ahalduntzea sustatzeko saio bat burutu zen. Saio honek bi helburu izan zituen: alde batetik, diagnostikoa osatzeko emakumeen ikuspuntua eta bizipenak jasotzea. Beste aldetik, emakumeen ahalduntze prozesuak sustatzea bizipenak elkarbanatzeko esparru bat osatuz.
 - Banakako galdetegi anonimoa (online): Topaguneko lan taldeko kide guztiei galdetegia bidali zaie, datu soziodemografikoak, erakundeari eta bere jardunari buruzko informazioa, iritziak eta bizipenak jasotzeko.

2020an, erakundearen genero diagnostikoa oinarri hartuta, Euskaltzaleen Topaguneko lehenengo genero berdintasun plana osatzen hasi ginen. Modu parte hartzailean egiteko helburuarekin, lantalde osoarekin bilera bat egin genuen. Lehenengo saio horretan, talde txikitik banatu eta diagnostikoan identifikatutako hobetzeko neurriak lehenetsun arabera antolatu genituen. Ondoren, genero lantaldean Topaguneko gainontzeko kideek egindako lehenetsun arabera antolamendua berretsi eta neurri horiek egingarritasunaren arabera erkatu genituen. Azkenik, neurri guzti horien lehenetsun eta egingarritasun maila kontuan hartuta, 3 urteko epean gauzatzeko antolaketa osatu genuen, 2021-2023 genero plangintza sortuz.

Horrez gain, genero lantaldea handitzeko deialdi zabala egin zen 2020an, lantaldera bi kide gehiago gehituz. Bi kide hauek genero berdintasun plangintzaren arduradun eta eraso sexistei aurre egiteko protokoloaren arduradun izendatu ziren.

2021. urtean genero plangintzaren lehenengo neurriak jarri dira martxan:

- Indarkeria matxistaren kontrako protokoloa osatzea.
- Langileen harrera planean bateratze neurriak eta baimenak txertatzea.
- Barne Araudian kontziliaziorako lizentziak berrikustea, eguneratzea eta ezagutaraztea.
- Gizonezkoek haien pribilegioen inguruan kontzientzia hartzeko formakuntza burutzea.
- Emakumeentzat lidergoaren eta ahalduntzearen inguruko formakuntza burutzea.

Laburbilduz, hurrengo esteka honetan ikusi daitezke gaur egunera arte Euskaltzaleen Topaguneak genero berdintasunaren alorrean emandako aurrera pausoak.

EMAITZAK (edo inpaktu positiboak edo ondorio negatiboan murrizketa): Jarraian zehazten da lantaldearen parte hartzea prozesuan zehar:

- **Lan taldearen oinarrizko formazioa:** Lan talde osoak parte hartu zuen bi saio ezberdinetan, 2018ko maiatzaren 29an eta ekainaren 7an hain zuzen ere.
- **Genero diagnostikoa osatzeko banakako galdetegi anonimoa (online):** 2019. urtean 30 kideko lan taldeetik, 22 pertsonak erantzun dute galdetegia; horietatik 15 emakume eta 5 gizon izan zirelarik.
- **Lan taldeko emakumeekin ahalduntze tailerra:** 2019ko ekainaren 6an burutu zen eta lan taldeko 10 emakumezko parte hartu zuten.
- **Lan taldearekin protokoloa lantzeko saioak:** Bi saio burutu ziren, 2019ko ekainaren 4 eta 11an, eta lan talde osoak parte hartu zuen.
- **Egitasmoetako dinamizatzaileekin protokoloa lantzeko saioak:** Hiru saio burutu ziren: 2019ko azaroaren 15 eta 16an eta otsailaren 21ean. 3 orduko saioak izan ziren eta guztira 20 kidek parte hartu zuten.
- **Barne Araudiaren lanketa:** Lantalde osoaren lehen lanketa saioa 2019ko irailaren 13an burutu zen.
- **Genero plangintza osatzen hasteko saioa:** 2020ko maiatzaren 28an burutu zen eta lantalde osoak parte hartu zuen.
- **Batzordeetako emakumezkoen ahalduntze saioa:** 2020ko ekainaren 18an burutu zen eta 12 emakumezko parte hartu zuten, egitasmoen dinamizazioan aritzen direnak, hain zuzen ere.
- **Emakumeentzat lidergoaren eta ahalduntzearen inguruko formakuntza:** Saioa aurrera eraman zen momentuan (2021. urteko ekainaren 16an) 25 emakume zeuden Topagunean lanean. Horietako 22k parte hartu zuten saioan, %88 alegia.
- **Gizonezkoek haien pribilegioen inguruan kontzientzia hartzeko formakuntza:** Saioa aurrera eraman ahal izateko gutxienez 10 gizonezko osatutako taldea behar zen. Saioa aurrera eraman behar zen momentuan

Topaguneko lantaldean 10 gizonezko bakarrik zeuden eta horietako bat aitatasun baimenean zegoen. Hortaz, formazio saio honetara deialdia Zuzendaritza Batzordera eta dinamizatzaileetara zabaltzea erabaki zen. Azkenean dinamizatzailearik ez zuen parte hartu saioan, baina Zuzendaritzako bi kidek parte hartu zuten. Orotara, 9 gizonek parte hartu zuten saioan, zuzendaritzako bi kidek eta lantaldeko zazpi hain zuzen ere.

Parte hartze datuetan ikusi daitekeenez, lortu da lantaldea prozesu osoan zehar inplikatzeko.

ALDERDI BERRITZAILEAK: Euskaltzaleen Topaguneko baloreetako bi dira mugimendua eta gardentasuna. Mugimenduari dagokionean, etengabeko berrikuntza dugu ardatz, une oro erronka berriak aukeratzen ditugularik. Ingurua gu bezain azkar mugituko dela argi dugu, baina ez gara atzean geldituko. Gardentasuna ere ezinbestekoa da Euskaltzaleen Topagunearentzat. Hortaz, edonork izan dezake hartzen diren erabakien berri, informazio eta baliabideen kudeaketa ere gardentasunez elkarbanatzen baitugu.

Gauzak horrela, bi balore horiek oinarri izan ditu genero ikuspegiaren lanketak, horretarako lantalde osoa prozesuan inplikatu. Azken hau izan delarik gure prozesuaren berrikuntza nagusia.

ARRAKASTA-FAKTOREAK: Euskaltzaleen Topaguneko genero lantaldeko kideek soilik egin zezaketen lanketa izan beharrean; erakundeko kide guztiek prozesuaren berri eta parte izatea lortzea izan da arrakasta nabarmenena. Izan ere, erakundearen eta lanarekiko ardura zein lankideen iritzi, bizipen eta harreman anitzen arteko sinergian sinistuta sortu baitugu prozesu parte hartzaile hau.

PARTAIDETZA (jardunbide egokiaren irismena): Aurreko parte hartze datuetan ikusi bezala, lantaldeko kide guztiak inplikatu dira modu batean edo bestean prozesuan. Horrez gain, zuzendaritza batzordeko kideak eta Euskaltzaleen Topaguneko bazkide diren hainbat euskara elkarte ere izan ditugu prozesuan zehar bidelagun.

INTEGRATUA: Alderdi berritzaileen puntuan aipatu bezala, Euskaltzaleen Topaguneko gardentasun eta mugimenduaren baloreekin bat egiten du aurkeztutako ibilbideak, hauek kontuan hartu direlarik parte hartze prozesuaren diseinuan eta gauzatze prozesuan zehar. Horrez gain, 2018. urtean abiatutako prozesu honek jarraipena izango du gaur egun indarrean dagoen 2021-2023 genero plangintzaren bitartez eta etorkizunean etorriko diren gainontzeko genero plangintzen bitartez.

TRANSFERIBILITATEA: Aurreko lerroetan aurkeztu dugun prozesu parte hartzailea erabat esportagarria da bestelako erakundeetara. Beti ere, hauen egoera eta baliabideak kontuan hartuta eta beharrezko moldaketak eginda.

BALIABIDEAK (pertsonek eta baliabide ekonomiko/finantzario eta materialak): Prozesu parte hartzaile bat aurrera eramaterako orduan diseinurako nahiz kudeaketarako baliabide ekonomiko zein pertsonalak beharrezkoak dira. Horrez gain, eta genero

berdintasuna lantzeko prozesua dela kontuan hartuta, bai genero lantaldearen zein gainontzeko lankideen dedikazioak ere kontuan hartu behar dira, besteak beste:

- Genero berdintasun plangintzaren eta eraso sexistei aurre egiteko protokoloaren arduradunen lana.
- Genero lantaldeko gainontzeko kideen inplikazioa.
- Lantalde osoaren formaziorako orduak.
- Emagin aholkularitzaren laguntza teknikoa.

JARDUNBIDEA EGIAZTATZEN DUEN MATERIALA: Aurreko lerroetan aipatu dugun prozesu parte hartzailea aurrera eraman dela egiaztatzen dute honako webgune esteka eta dokumentazioek:

- [Euskaltzaleen Topagunean genero berdintasunaren alorrean egindako ibilbidea.](#)
- [Euskaltzaleen Topaguneko genero berdintasun planaren lehen neurriak abian.](#)
- [Eraso sexistei aurre egiteko protokoloa](#)
- Euskaltzaleen Topaguneko genero plangintza eta protokoloaren txostenak (beharrezkoa balitz atxikita bidali ditzakegu)

DATU PERTSONALEN BABESA

Informazio-klausula (lehen maila)

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera (aurrerantzean, DBEO), EUSKALITek honako informazio hau ematen du datu pertsonalen tratamenduari buruz:

Arduradunaren identifikazioa : Euskalit Kalitatea Sustatzeko Euskal Fundazioa (www.euskalit.net).

Baimena ematen dut EUSKALITek eta Emakundek nire datuak trata ditzaten, Berdintasuna Kudeaketan bilatzailean eta sor daitezkeen komunikazioen eta esperientzia-trukeen kudeaketan parte hartzeko.

EUSKALITek komunikazioak bidali ahal izango dizkizu jarduera horiei buruz eta sustapen-izaerako beste jarduera batzuei buruz.

Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, datuen tratamendua mugatzeko, datuen aurka egiteko eta datuok transferitzeko eskubideak balia ditzakezu, lopd@euskalit.net helbidera idatzita.

Mesedez, bisitatu [pribatutasun-politika](#) helbidean, EUSKALITek zure datuak nola tratatzen dituen jakiteko eta zure eskubideen berri izateko.